

Balorezko Proposamena:

Gure enpresak aurkezten duen balorezko proposamena farmako eta tratamenduak hartzea gogorarazten duen aplikazio berri bat da, kontsumitzaileek egin behar hau beti gogora dezaten, bere osasun egoera ez arriskatuz. Aplikazio honetan bertan erabiltzailearen datu eta historial medikoa daude erregistratuta honekiko atentzioa pertsonalizatuagoa eta bereiztuagoa izan dadin.

Gure balioa kualitatiboa dela esan dezakegu, aplikazio honen diseinu berritzaileak osasunaren arloan leiho berri bat irekitzea ahalbideratzen duelako.

Era berean, lehiakidearengandik bereizten gaituen hainbat kualitate dauzkagula esan dezakegu. Horien artean berritasuna, pertsonalizazioa eta erabiltzailearen beharretara moldatzeko gaitasuna ditugu ezaugarri nagusi. Hortaz gain, asko errazten du lana batez ere memoria arazoak dituzten pertsonentzat. Aipatutako diseinu berritzaileak, eskuragarritasun apartekoa du, aparatu elektronikoko duen orok lor baitezake eta azkenik bere erabilerraztasuna ere aipa beharko litzateke.